



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Europar Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera (EBTren 50. artikulua) Brusela, 2019ko urriaren 17a

Europar Batasuneko 27 Estatu kideen Estatu- eta Gobernu-buruek (denek, Erresuma Batuak izan ezik) bilera egin zuten Bruselan 2019ko urriaren 17an.

Europar Kontseiluaren ezohiko bilkura honetan, 27en EBk Erretiratzeko Akordio berri bat onartu zuen, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko baldintzak ezartzen dituen, Itunak eta Europar Batasuneko zuzenbidea Erresuma Batuari aplikatzeari uzteko. Halaber, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko harremanei buruzko Adierazpen politikoaren bertsio berria ere jasotzen du akordioak.

Erresuma Batuak eta EBk lortutako bigarren akordioa da. Lehenengoa, 2018ko azarokoa, Parlamentu britainiarrak atzera bota zuen hiru aldiz; beraz, erretiratzeko epea – hasiera batean 2019ko martxoaren 30erako finkatu zena – bi aldiz luzatu zen, 2019ko apirilaren 12ra arte, eta urriaren 31 arte, hurrenez hurren.

Akordio berriak ez du aurrekoaren edukian eraginik izango, herritarren eskubideei dagokienez, eta ezta Erresuma Batuak Estatu kide irtenari dagokionez dituen eskubideak eta finantza-betebeharrak konpontzeko terminoak ere, printzipio eta konpromiso multzo batean oinarritzen direnak

Hala ere, Irlandari buruzko protokoloa eta etorkizuneko harremanari buruzko Adierazpen politiko nabarmen aldatu dira. Horretarako, EBk, Erresuma Batuak eta Irlandak lagapenak egin behar izan dituzte.

Erretiratzeko Akordio berriaren Mekanismo espezifiko bat ezartzen da Ipar Irlandarako, Trantsizio-aldiaren amaieran indarrean sartuko litzatekeena. Mekanismo honek hiru helburu gako betetzea nahi du:

- muga gogorra Irlandako uhartean ezartzea saihestea,
- Ipar-Hegoa lankidetzarekin jarraitzea
- Ostiral Santuaren Akordioa babestea

Mekanismo honek aurreko Akordioan barneratutako larrialdi-mekanismo (backstop mechanism) delakoa ordezkatzen du; hura oztopo nagusia izan da Erresuma Batuko Parlamentuaren aldetik Akordioaren berrespenera jasotzeko

Mekanismo hau trantsizioaldiaren – 31.12.2020-en – amaieran abiaraziko litzateke, baldin eta aipaturiko data iritsita, EBaren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko erlazioa arautzen duen Akordio berria oraindik ez bada indarrean sartu. Bi alderdiek epe laburrenean Akordio berri honetara heltzeko konpromisoa hartzen dute.

Protokoloa Erretiratzeko Akordioaren parte da eta indarrean egongo da EBak eta Erresuma Batuak ordezkatzen duen akordio bat hartzen ez duten bitartean. Era berean,



Erresuma Batuak, Erretiratze Akordioan aurrez ikusitako aldi baterako aldiaren luzapena eska dezake, 2020ko uztailak 1aren aurretik eta aldi bakarrean.

Mekanismoa aplikatuko balitz, protokoloak hurrengo tratamendu espezifikoa ezartzen du Ipar Irlandarako:

Ipar Irlanda Erresuma Batuko Aduana Batasunaren parte izango da, baina Europar Batasuneko merkatu bakarreko araua bete beharko ditu. Beraz, kontrolak eta egiaztapenak egiteko muga Irlandako itsasoa izango da eta ez Ipar Irlanda eta Irlandako Errepublika banatzen dituen muga. Gainera, Erresuma Batuak “Ipar Irlandako sarrera-puntuetan” txekeoak egitea onartuko du.

Ipar Irlandako Biltzarraren zeregina funtsezkoa izango da protokoloa ezarri ondorengo lau urteetan; izan ere, indarrean jarraituko duen erabakitzekeo ahalmena izango du.

Ipar Irlandak Erresuma Batuaren aduana batasunean jarraitzeak suposatuko du herrialde horrek lortzen dituen merkataritza-akordioez baliatu ahalko dela.

Hala ere, Ipar Irlandaren ekonomiak merkatu bakarreko arau-kopuru mugatu batekin bat egingo jarraituko du, hain zuzen ere eremu hauetan:

- salerosgaiak,
- kontrol fitosanitarioak,
- nekazaritza-sektoreko arauak,
- BEZ eta ondasunen gaineko fiskalitatea eta
- estatuko laguntzen inguruko arauak.

Zerbitzuak kanpoan geratzen dira

Europako Batzordearen arabera, Aduana Batasunaren Kodea Ipar Irlandan ezartzen jarraituko da.

Muga zergei dagokionez:

- Muga zergak Britainia Handitik datozen eta EB27ko herrialderen bat azken helmuga duten produktuei aplikatu zaizkie soilik. .
- Britainia Handitik datozen eta Ipar Irlandan kontsumituko diren produktuei, ez zaie muga-zergarik ezarriko, beti ere produktu horiek ondoren prozesatzen ez badira.
- Hirugarren herrialdeetatik datozen eta ondoren EBko herrialde batera joango ez diren produktuen kasuan, Erresuma Batuko moduko muga-zergek eraenduko zaie.

Hala ere, jakiteke dago EBk nola ziurtatuko ote duen Erresuma Batuan ekoiztutako produktu bat ez dela salduko EB27an.

EBren eta Erresuma Batuaren arteko batzorde batek “arrisku” horiek guztiak balioetsiko ditu eta irizpide batzuk finkatuko ditu; alderdi biek konpromisoa hartu dute irizpide horiek finkatzeko trantsizio-aldia amaitu aurretik.

Protokoloak “ahots erabakigarria” ematen dio Ipar Irlandako Biltzarrari. Horretarako, “adostasunaren” mekanismoa sortu da. Protokoloa ezarri ondorengo lau urteetan, Biltzarrak erabaki beharko du mekanismo hori luzatu nahi duen edo ez:



- Gehiengo soil batek babesten badu, lau urtez zabalduko da;
- Bi komunitateek babesten badute, zortzi urtez zabalduko da.
- Baztertuz gero, protokoloa ez litzateke baliozkoa izango bi urteren buruan.

Etorkizuneko erlazioaren inguruko Adierazpen politikoaren aldaketari dagokionez, honek ekarriko du merkataritza arloan, EBaren eta Erresuma Batuaren arteko erlazioa erlazio pribilegiatua ez dadila izan, eta Erresuma Batua pasa dadila EBren lehiakide ekonomikoa izatera.

EBeko posizioa honoko Konklusio-testuan irudikatuta geratu da:

1. Europar Kontseiluak berretsi egin du Britainia Handiko Erresuma Batua eta Ipar Irlanda Europar Batasunetik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegotik ateratzearen gaineko Akordioa. Horren ondorioz, Kontseilu Europarrak Batzordeari, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari eskatu die behar dituzten xedapenak har ditzaten akordio hori 2019ko azaroaren lehen indarrean jartzea ziurtatzeko, ateratze ordenatu bat ahalbidetze aldera.
2. Europar Kontseiluak Adierazpen Politikoa onartu du, non Europar Batasunaren eta Britainia Handiko Erresuma Batuaren eta Ipar Irlandaren arteko etorkizuneko harreman-esparrua azaltzen den. Europar Kontseiluak berresten du Europar Batasuna prest dagoela etorkizunean ahal denik eta elkartze estuena ezartzeko Erresuma Batuarekin, Adierazpen Politikoarekin bat eginez. Kontseilu Europarrak dagoeneko adostu dituen orientabideetan azaldutako jarreraren eta printzipio orokorren arabera definituta izaten jarraituko du Europar Batasunaren planteamenduak, baita adierazpenen arabera ere, bereziki 2018ko azaroaren 25eko adierazpenaren arabera. Kontseilu Europarra etengabe arduratuko da gai horretaz.
3. Europar Kontseiluak eskerrak berresten dizkio Michel Barnierri, nekatu gabe ahalegindu delako Europar Batasunaren negoziatzaile nagusi moduan, eta Hogeita Zazpien arteko batasuna mantentzeko ekarpen handia egin duelako Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzearen gaineko negoziazioetan zehar.

Oharra:

Europar kontseiluaren ohiz kanpoko bilera honen ondoren, Boris Johnson Londresera itzuli zen, apenas bi egunetan, Parlamentu britainiarraren ordezkarien babesa lortzeko asmoz.

Gogora dezagun “Ley Benn” izena emandako legeak behartzen zuela Lehen Ministroa luzapena eskatzera baldin eta ez bazuen lortzen EBrekin lortutako akordioa Parlamentu britainiarrak sostengatzea 2019ko urriaren 19a (22:00tan) baino lehen.

Testuinguru honetan, Gobernu britainiarrak Komunen Ganberaren ez ohiko saioa deitu zuen urriaren 19an.

Saioaren helburua zen Parlamentua EBaren eta Erresuma Batuaren artean heldutako akordioaren alde agertzen zen erabakitzea, baina bozketa ez zen gertatu. Bere ordezkari emendakina onartu zen – 322 boto alde, 302 aurka –, akordioaren behin betiko berrespena inplementatu behar duen legeria onartu arte atzeratzea eskatzen zuena. Aipaturiko araudiaren onespenez eskatzen duen denbora ikusita, emendakinak de facto luzapen berria eskatzera behartu du Lehen Ministroa.



Bozketaren ondorio gisa, Boris Johnson-ek bi gutun (kontraesanezkoak) bidali zituen EBra larunbatean bertan; lehena – bere sinadurarik gabe – Benn legean sartutako gutun baten kopia da, erretiratzearen atzerapena – 31.01.2020 arte – eskatzen duena. Bigarren gutunean, Lehen Ministroak berak sinatuta, atzerapena akatsa izango litzatekeela adierazten du. Gainera, EBeko liderrei eskatzen die Parlamentu britainiarra premia dezatela bere erabakia berriz aztertzeraz eta Erretiratze Akordioa azken bertsioaren alde botoa ematera.

Kontseiluaren Presidenteak kontsultak hasi ditu Estatu eta Gobernu-buruekin eta adierazi du EBak erabakia hartuko duela datozen egunetan luzapenaren eskaeraren inguruan.

Halaber, ohar honen bidalketaren orduan, astelehenerako Parlamentu britainiarraren saio berri bat zegoen deitua, – Gobernuaren eskariz –. Horren bitartez Boris Johnson Lehen Ministroak Erretiratze Akordioa berriro bozkatzea zuen asmoa